

Erf.: Kudeaketa, diru-bilketa, ikuskaritza eta zehapen-araubideari buruzko ordenantza orokorraren testu osoaren eguneraketa.

Tx. zk.: 2021/92

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak, idazkari akzidental funtzioetan, jarraian zehazten den gaiari buruz egiten dut honako

TXOSTENA

Gaia: : Kudeaketa, diru-bilketa, ikuskaritza eta zehapen-araubideari buruzko ordenantza orokorraren testu osoaren eguneraketa onartzea.

Espediente tramitatzaileria: Ekonomia, Ondare eta Errenta Saila

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0258 (2020)

Txostenaren oinarria: Toki Erakundearen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2021eko uztailaren 29ko Ekonomia, Ondare eta Errenta Arloko Administrazio Bereziko Teknikariaren erabaki proposamenaren arabera, 2022. urterako Ordenantza orokorraren aldaketak onartzeko beharrez dago.

Bigarrena.- 2021eko uztailaren 2tik 15era arte kontsulta publikoa egin da Bermeoko udaleko webgunean, konpondu nahi diren arazoak, egokitasuna, helburua eta beste aukera erregulatzialeak azalduz.

Hirugarrena.- 2021eko uztailaren 29ko Ekonomia, Ondare eta Errenta Arloko Administrazio Bereziko Teknikariaren erabaki proposamenaren arabera, kontsulta publikoan ez da ekarpenik jaso.

Laugarrena.- 2021eko uztailaren 29an Ekonomia, Ondare eta Errenta Arloko Administrazio Bereziko Teknikariak, Kudeaketa, diru-bilketa, ikuskaritza eta zehapen-



araubideari buruzko ordenantza orokorraren testu osoaren eguneraketa onartzeko erabaki proposamena egin zuen.

Oinarri juridikoak

1. Aplikagarria den araudia

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (4.1.a, 22.2.d, 25, 49, 70.2 artikulua)

- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki erakundeen lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena. (56 artikulua)

- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen Legea (128,129, 131, 132 eta 133 artikulua)

- Edukiari dagokionez, Ekonomia, Ondare eta Errenta Arloko Administrazio Bereziko Teknikariaren proposamenaren bigarren argudioetan jasotako Foru Arauak eta Foru Dekretuak.

2. Azterketa juridikoa

A) Oinarrizko kontzeptuak

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 4.1.a) artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen 39/2015 Legearen 128.artikuluan aitortzen da udalek duten eskumena araudiak egiteko eta autoorganizatorako. Hori horrela, Bermeoko Udalak bere eskumenen inguruan legeek ezarritakoa garatu dezake izaera orokorreko xedapen administratiboen bitartez, zeintzuk beti legea errespetatu behar duten.

Izan ere, Bermeoko Udalaren eskumena da Kudeaketa, diru-bilketa, ikuskaritza eta zehapen-araubideari buruzko ordenantza orokorraren testu osoaren eguneraketa onartzea, besteak beste, abenduaren 16ko 9/2005 Toki Ogasunari buruzko Foru Arauaren



arabera eta Euskadiko Toki Erakundeen 2/2016 Legearen 109. artikulua eta hurrengo arabera.

Hori horrela, zuzena da Kudeaketa, diru-bilketa, ikuskaritza eta zehapen-arabideari buruzko ordenantza orokorraren testu osoaren eguneraketa lantzea, izapidetzea eta onartzea.

Araudia onartzeko nahitaez 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezartzen diren printzipioak errespetatu behar dira espediente guztian zehar, hau da, beharizana, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak.

Kuantifikatu eta balioetsi behar dira ordenantzaren eragin eta erreperkusioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

B) Edukiari buruz

1. Ordenantzaren edukiari buruz hurrengo ekarpenak egiten dira:

- Ordenantzaren hitzaurrean erregulazio oneko printzipioak betetzen direla justifikatu behar da.

- 30. artikulua: 6. atalean, salbuespenezko kasuak zeintzuk diren zehaztu beharko litzateke, erabakitzeko garaian arazorik ez egoteko.

Eta aurrekoarekin lotuta, artikulua bereko 7. atalean, salbuespenak aplikatzeko irizpideak zehaztu beharko lirateke.

10. atalean ere, salbuespenezko kasuak zehaztu beharko lirateke, erabakiak hartzerako garaian arazorik ez egoteko.

-Xedapen Indargabetzailea: modu honen idaztea proposatzen da: "Ordenantza hau indarrean sartzearekin batera, ondoriorik gabe geratzen da 2006ko azaroaren 2ko Osoko bilkurak kudeaketa, bilketa eta ikuskapenari buruz onartutako ordenantza fiskala, 2006ko azaroaren 24ko 225. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua, eta bere aldaketa guztiak".



2. Erabaki proposamenari buruz hurrengo ekarpenak egiten dira:

- Bigarrena: entzunaldia 30 eguneko epean egingo dela zehaztu.
- Hirugarrena: zehaztu eragina 2022aren urtarrilaren 1ean bada edo argitaratu eta 15 laneguneko epean.

C) Jarraitu beharreko prozedura

39/2015 Legearen 132 eta 133. artikulua, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikulua eta 7/1985 Legearen 49 eta 70. artikulua kontuan hartuta prozedura hurrengoa izan behar da:

a) Ordenantza udalaren urteko plangintzan aurreikusita egon behar da (39/2015 legearen 132. artikulua).

Argi utzi behar da, nahiz eta Francisco Velasco moduko adituek defendatu Konstituzio Auzitegiaren 55/2018 epaiaren geroztik artikulua hori ez dela Toki erakundeentzat oinarritzakoa, praktika on moduan hartzen dela.

Plangintzan ez dago aurreikusita.

b) Administrazio Bereziko Teknikariak justifikatuko du Kudeaketa, diru-bilketa, ikuskaritza eta zehapen-araubideari buruzko ordenantza orokorraren testu osoaren eguneraketa onartzeko beharrezana eta erregulazio oneko printzipioak errespetatu direla.

2021eko uztailaren 29ko erabaki proposamenean justifikatu zuen.

c) Hala dagokionean, ordenantza aldatzeko proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Bermeoko Udalaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienen puntu hauei buruz:

- ◆ Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- ◆ Arau hori onestea beharrezko eta egoki den



- ◆ Arauaren helburuak.
- ◆ Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Izapide hori prozeduran burutu izan da, espedientean agertzen den legez.

d) Administrazio Bereziko Teknikariak, Kudeaketa, diru-bilketa, ikuskaritza eta zehapen-araubideari buruzko ordenantza orokorraren testu osoaren eguneraketa onartzeko erabaki proposamena egingo du.

Erabaki proposamena egin da eta edukiari dagokionez, iradokizun batzuk egiten badira ere, zuzena da.

e) Kontuhartzaileak txostena egin beharko du kuantifikatzeko eta balioesteko ordenantzaren eragin eta erreperkusioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

Kontu hartzailearen txosten gehitzea falta da.

f) Idazkari nagusiak txostena egin beharko du.

Behin idazkariaren aldeko txostena izanda hurrengo pausuak eman beharko dira:

a) Informazio Batzordeak erabaki proposamenaren irizpena eman beharko du.

b) Osoko Bilkurak ordenantza hasieraz aldatzea onartuko du, gehiengo soilez, 7/1985 Legearen 22.2.d eta 47. artikuluekin bat etorriz.

c) Informazio publikoa eta entzunaldia gauzatuko dira, interesdunek 30 eguneko epean erreklamazio edo iradokizunak aurkezteko. Hasierako onarpena webgunean, iragarki taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.



d) Hala dagokionean, ordenantzak pertsonen eskubide eta interes legitimoiei eragiten dienean, Udalak webgunean argitaratuko du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzan dituzten eta beren helburuak arauaren xedearekin zerikusi zuzena duten antolakunde edo elkarte legez aitortuei.

Legeak ez diosku entzunaldi hori noiz burutu behar den, baina praktikan egoki ikusten da entzunaldi hori informazio publikoaren fasearekin batera egitea, proportzionaltasuna, efikazia eta efizientzia handiagoa bermatzeko, eta beti ere, herritarren eta elkarten eskubideak erabat errespetatuta.

e) Osoko Bilkurak aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebatzea eta behin betikoz ordenantza onartzea.

Hasierako onarpenean ezarri daiteke erreklamaziorik izan ezean Kudeaketa, diru-bilketa, ikuskaritza eta zehapen-araubideari buruzko ordenantza orokorra automatikoki behin betikoz onartuta egongo dela baina horretarako arduradunaren txostenean oinarritutako idazkariaren ziurtagiria beharko da alegaziorik egon ez direla egiaztatuz.

f) Erabakia eta aldaketen testua argitaratu beharko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko Udaleko gardentasun atalean eta iragarki taulan, indarrean sartuko da BAO n argitaratu eta 15 egun igarota, 7/1985 Legearen 65.2 artikulua arabera.

D) Eskumena¹

Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurari dagokio ordenantzak onartu eta aldatzeko eskumena, gehiengo soilez.

¹ Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakunde Oinarriak arautzen duten Legearen 22.2.d artikulua arabera.



Ondorioak

Espedientea aztertu ondoren, Kudeaketa, diru-bilketa, ikuskaritza eta zehapen-araubideari buruzko ordenantza orokorraren testu osoaren eguneraketa onartzeko proposamenari aldeko txosten baldintzatua egiten zaio.

Baldintzak:

-Erabakia hartu orduko ordenantzaren aldaketa 2021. urteko Araudi Plangintzan aurreikusita egon beharko da. Hau da, 2021. urteko Araudi Plangintzaren aldaketa onartuta egon beharko da.

-Kontu hartzailearen txostena espedientera gehituta egon beharko da.

*Hurrengoetarako erabaki proposamen bakoitzeko espediente bat zabaltzea aholkatzen da. Hau da, ordenantza orokorra aldatzeko espedientea, ordenantza fiskalak aldatzeko espedientea eta prezio publikoak aldatzeko espedientea zabaltzea.

Informatzen duguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalterik gabe.

Bermeon, 2021eko abuztuaren 25ean.

Karmele Muñoa Arrigain

Idazkaritzako AOT



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E5000789FB00S8N8Q6G1J5E8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 25/08/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/08/2021
11:22:02

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0258
Data: 18/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

